

**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA, LURZORUA EZ KUTSATZEKO ETA KUTSATUTAKOA GARBITZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA**

Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko 1994ko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak ekonomia-arauen kontrola arautzen du III. tituluko IV. kapituluan. Nahitaezkoa da ekonomia-arauen kontrola egitea; horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak dagokion txostena egin behar du.

Honako txosten hau egin da, xedapen hauek kontuan hartuta: aipatu den araua, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 1995eko urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko III. kapituluaren 3. atala, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko 2013ko apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuaren 4. artikulua.

TXOSTENA:**I. XEDEA**

Txosten honen bidez, izenburuan adierazitako proiektuaren ekonomia-arauen kontrola egingo da. Izenburuak dioen moduan, proiektu horren helburua EAEko lurzorua babestea da, eta, horretarako, gizakien ekintzek lurzoruaren ezaugarri kimikoak aldatzea ekidin nahi da. Lege-aurreproiektu honek indargabetu egiten du 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzekoa eta kutsatutakoa garbitzekoa. Horren orde, araudi berri bat proposatzen du, espedientean azaltzen den moduan, *Administrazioak kutsatuta egon daitezkeen lekuak leheneratzeko prozeduretan duen esku-hartzea murrizteko, bai eta prozedura horiekin lotutako izapideak errazteko eta ingurumenaren babesa egoera garrantzitsuenetara mugatzeko ere. Hori guztia egitean, ingurumen-estandarrek zehatz-mehatz beteko dira, eta aldaketak ez du inolaz ere ekarriko estandar horiek alde batera uztea.*

Lege-aurreproiektuak zioen azalpen bat eta 68 artikulua ditu, bederatzi kapitulutan banatuta. Artikulu horietan zehar zenbait xedapen orokor ezartzen dira: lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresnak; lurzoruaren jabe diren pertsona fisiko nahiz juridikoen betebeharrak; lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak; lurzoruaren kalitatearen alorreko prozedurak; lurzorua leheneratzea; lurzoruaren politikaren tresnak: lurzorua ez kutsatzearen eta kutsatutakoa garbitzearen alorreko tasak; eta zehapen-araubidea. Gainera, honako hauek ere baditu: bi xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat (*Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea* eta

Legean ezarritakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak indargabetzen ditu) eta bi azken xedapen.

II. AURREKARIAK, EKIMENAREN EGOKITASUNA ETA AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA.

Aurreproiektuko zioen azalpenak eta espedienteko memoriak honako hau adierazten dute: *“lurzorua, gizadiaren natura-baliabide preziatuenetako bat, giza jarduera gehien euskarriztat erabiltzen den oinarrizko elementu bat da”. Urteetan zehar erabilera desegokia egitearen ondorioz lehen alarma-zantzuak agertu ondoren, zenbait mekanismo jarri behar izan ziren martxan, lurzoruaren erabilerak iraunkorrak izateko eta natura-baliabide hori arriskuan ez jartzeko. Izan ere, lurzorua urria da, eta ez da berriztagarria, eta gizakiaren jarduerak gero eta gehiago eragiten dio; ezaugarri fisiko, kimiko eta biologikoak aldatzen dizkio, eta, batzuetan, aldaketa larriak eragiten dizkio. Eusko Legebiltzarrak, kalte horiek prebenitzeko eta konpontzeko irtenbideak bilatu nahian, eta arazoa hurrengo belaunaldiei ez igarotzeko asmoz, 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea onartu zuen: lurzorua ez kutsatzekoa eta kutsatutakoa garbitzekoa. Lege hori da lege-aurreproiektu honen aurrekari zuzena. Nolanahi ere, lege hori aplikatzean, legea bera aldatzea eskatzen duten zenbait kontu ikusi dira.*

Horrez gain, zioen azalpenean honako hau adierazten da: *aldaketen helburua izango da, alde batetik, administrazioaren esku-hartzea murriztea, administrazio-izapideak erraztea eta beharrezko ez den kasuetan babesik ez emateko printzipioa ezartzea. Bestetik, estatuko lege batek, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, komenigarri egiten du 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko alderdi batzuk aldatzea; adibidez, zer pertsona egongo diren behartuta kutsatutako eta hondatutako lurzoruak leheneratzeko neurriak hartzea. Hori dela eta, komeni da legearen egiturari ere eragiten dioten aldaketa batzuk egitea, eta, beraz, lege berri bat egitea proposatu dugu, edukien sistematika hobea lortzeko.*

Hemen lantzen ari garen lege-aurreproiektu hau, 2013ko ekainaren 25eko Gobernu Kontseiluaren Erabakian zerrendatu ziren lege-proiektuen barruan dago -erabaki horren bidez X. legegintzaldirako (2012-2016) legegintza-egutegia onartu zen-.

Testuinguru horretan, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila hasia da egin beharreko espedienteak egiten. Hona hemen espediente horretan jasotako dokumentazio garrantzitsuena:

- *Prozedurari ekiteko agindua, garai hartako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena.*



- *Ekimenari buruzko txosten juridikoa, Saileko Aholkularitza Juridikoarena.*
- *Lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoa. Aurrerago, sailak hala eskatuta, beste memoria bat egin zen (2013ko urriaren 30eko bertsioa).*
- *Aurreproiektua aldez aurretik onartzen duen agindua, egungo Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuarena.*
- *EMAKUNDEren txostena.*
- *Lege-aurreproiektuari dagokion testuaren zirriborroa.*
- *16/2012 Irizpena, 2012ko uztailaren 18koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearena.*
- *Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, 2013ko urriaren 22koa.*

Bulego honek Aurrekontu Zuzendaritzak 2013ko azaroaren 7an egindako txostena jaso du. Txosten horren edukirik garrantzitsuena txosten honetara gehituko da, dagoen-dagoenean:

III. AZTERKETA:

III.1.- Prozedura eta izapideak:

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko 2004ko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.a letran ezarritakoarekin bat etorriz, aurreproiektua aholku-erakunde horren irizpenpean jarri behar da onartu aurretik.

Alde horretatik, gogorarazi behar da Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko 1994ko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 27.2 artikuluzatian ezarritakoarekin bat (*Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko 2004ko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen azken xedapenetatik lehenean emaniko idazketaren arabera*), jakinarazi egin beharko zaizkiola Kontrol Ekonomikoko Bulegoari lege-aurreproiektuetan eta xedapen arautzaileen proiektuetan sartzen diren aldaketak, aldaketa horiek Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpeneko iradokizunen eta proposamenen ondorio direnean (*horretarako, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariaren 2005eko urriaren 14ko 2/2005 zirkularrean ezarritakoa bete beharko da*).

III.2.- Testua eta edukia

Horiek horrela, eta jakinik Aholku Batzorde Juridikoari dagokiola aztertzea lege-aurreproiektuak zuzenbidea betetzen duen edo ez, Bulego honek ekonomia- eta araudi-kontrola egingo du, Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko 1994ko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak 25. artikulutik

27.erakoetan xedatutakoari jarraiki. Halaber, aintzat hartu du Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 1995eko urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak 41. artikulutik 46. artikulura bitartean adierazitakoa.

Jaurlaritzari buruzko 1981eko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 57. artikuluan agintzen du lege-proiektuekin batera azterketa bat egin behar dela, lege berriak eragin dezakeen aurrekontu-kargari buruzkoa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 2003ko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 10.3 artikuluzatian ezarritakoaren arabera, *“espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du”*.

Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko arautegiari dagokionez, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen 1995eko urriaren 31ko 464/1995 Dekretuko 42. artikulua ezarritakoaren arabera, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena emateko ezinbestekoa da memoria bat bidaltzea. Memoria horretan, kalkulatu behar da zer gastu eta zer sarrera sortzen dituen aurrekontuetan araua indarrean sartzeak; zehaztu behar da nola finantzatuko diren gastu horiek; azaldu behar da zer aurrekari dauden eta justifikatu behar da zer behar dagoen arau hori egiteko; azaldu behar da zer aurrekontu-programa ekonomikotan txertatuko den araua, eta zehaztu beharko da zer helbururi, ekintzari eta adierazleri eragiten dien; ebaluatu behar da zer ondorio ekonomiko eta sozial izango dituen araua aplikatzeak; eta aurkeztu egin behar dira proposatzen den arauaren ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutzeko behar diren datu, txosten eta azterlan guztiak.

Aholku Batzorde Juridikoaren 43/1999 irizpenak adierazten duenez, arau baten bideragarritasuna aurreikusteko azken asmoa betetzeko, hark sortuko duen gastu publikoa ez ezik, araudi hori aplikatzeak gizarteari eskatuko dion ahalegina ere aztertu behar da, eta ekar ditzakeen etekin ekonomikoekin edo bestelako etekinekin alderatu. Ondoren, bi alderdiak haztatu behar dira, proportzionaltasunaren printzipioari jarraituz. Azterketa hori edo kostuen eta etekinen ebaluazio hori egiteko, proiektuak dakarren gastu publikoa zenbatestean gain (Espainiako Konstituzioaren 31.2 artikuluzatiak, baliabide publikoen banaketa ekitatiboa xedatzean, agintzen du gastu publikoa

zenbatetsi behar dela, kostuen eta etekinen ebaluazio hori egitean), haztatu egin behar dira ezarri nahi den arauak sortuko lituzkeen betebeharrak eta baldintzek enpresa-ekimenei eta inplikaturik dauden profesionaleri ekar diezazkiekeen ondorio ekonomikoak. Besteak beste, eragin horrek zenbait ondasun eta zerbitzuren prezioan izan ditzakeen ondorioak aurreikusitako behar dira.

Laburbilduz, araua onetsi aurreko hausnarketa-prozesuan, ebaluatu egin behar dira ezarri nahi den arau horrek eragingo dituen ondorio ekonomiko guztiak, gastu publikoan ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioak betetzen direla bermatzeko. Gainera, arauak norbanakoengan eta ekonomian oro har izango duen eragin ekonomikoa ere aztertu behar da, arrazoizkoa eta bideragarria dela bermatzeko.

Lege-aurreproiektua irakurri ondoren, aurreikus daiteke zenbait ondorio ekonomiko izan ditzakeela, desagertu egingo delako administrazio honen ebazpen bidez ematen ziren adierazpen batzuk eskatzeko betebeharrak -horrek, era berean, protagonismo handiagoa emango die jakinarazitako ekintzak a posteriori kontrolatzeko eta egiaztatzeko lanei (17. art.) (Aurreproiektuak ez du zehatz-mehatz lantzen nola egingo den prozedura hori), eta ondorioak izan ditzake giza baliabideetan eta baliabide materialetan-, tasengatiko diru-sarrera berriengatik, zehapen-araubidea aldatzeagatik... Horrek, ziur asko, ondorioak izango ditu hirugarrengoen eta ekonomian ere.

Espedienteko memoria ekonomikoaren helburua da azaldutako eskakizun horiei erantzuteko datuak ematea. Adierazi behar da, oro har, ahalegin bat egin dela eskatutako edukiak memorian sartzeko, txosteneko hurrengo ataletan hobeto aztertuko dugun moduan. Ondorioztatu da arau berriak ez duela gasturik sortzen, baizik eta urtean gutxi gorabehera 3.955.830,00 € aurrezten dituela. Nolanahi ere, uste dugu azken kantitate hori kalkulatzeko erabili diren batugai guztiak adierazi beharko liratekeela, eta langileen alorreko datu ekonomikoak argitzen saiatu, IHOBeri esleitutako zereginei eta harekin egindako kontratuei dagokienez (aurrerago aztertuko ditugu kontu horiek zehatzago).

III.2.1.- Izapidetutako arauaren **aurrekontu-bideragarritasuna** ebaluatzeko, esan behar da, egungo aurrekontu-egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak kontuan hartuz, eta aurreproiektuko testua eta memoria ekonomikoaren edukia aztertu ondoren, aurreproiektua aplikatzeak aurrekontu-ondorio hauek izango dituela honako arlo hauetan:

1.- Gastuen aurrekontua



1. eta 2. kapituluak- Memoriak honako hau gogorarazten digu: *"Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea bihurtu zenaren lege-aurreproiektuaren memorian, aurreikusten zen giza baliabideen alorrean 13 pertsona gehiago beharko zirela Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan, arau horretan aurreikus zitezkeen beharrei erantzuteko. Zehazki, honako 13 lanpostu berri hauek eskatzen ziren: aholkulari juridiko 1; goi-mailako 4 teknikari; erdi-mailako 4 teknikari; lanbide-heziketako 2; administrari 1; eta administrari laguntzaile 1".*

Memoriak honela jarraitzen du: *Legea 2005. urtearen hasieran onartu zen. 2007an hasi ziren lanean lehendabizikoz bi teknikari, eta gero, 2008an, beste bi teknikari gehitu ziren. Horrez gain, talde horrek Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzari esleitutako abokatu bat dauka bere zerbitzura, aholkulari-lanak egiteko. 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea izapidetzean aurreikusitako langile-hornidura ez denez bete, ez zeuden nahikoa langile, eta, beraz, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak IHOBera atxikitako teknikarien lankidetzara behar izan du, urtero sinatzen den eta EAEko Aurrekontu Orokorretan jasotzen den enkarguaren bidez. (...)*

Horrez gain, memoriak adierazten du, lege-aurreproiektuan izapideak erraztea aurreikusten bada ere, neurri hori ez dela nahikoa izango giza baliabide nahikoa ez izatea konpentsatzeko, eta gogorarazten du lege-aurreproiektuak lurzoruaren kalitateari buruzko zenbait xedapen dituela, eta haiek kudeatzeko behar adina langile eduki beharko direla. Hauek dira xedapenak:

- *Lurzoruaren egoerari buruzko txostenak*
- *Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Plana*
- *Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroa*
- *Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko akreditatutako erakundeak*
- *Ikuskapena eta zaintza*
- *Lurzoruaren kalitatearen alorreko tasa-sistema*
- *Zehapen-araubidea*

Dena den, adierazi behar da xedapen guztiak ez direla berriak, haietako asko ezarrita baitzeuden dagoeneko indarrean dagoen legerian (1/2005 Legean, jasota daude erregistroa, zehapen-araubidea, inbentarioa...).

Memoriak honako hau ondorioztatzen du: *"Hori dela eta, aurreko arauko memoria ekonomikoan adierazi ziren langile-beharrek indarrean jarraitzen dutela uste dugu.*

Memoria ekonomiko horri jarraiki, lurzoruaren kalitatea adierazteko prozedurak izapidetzeaz arduratzen den zerbitzura oraindik ere esleitu ez diren 8 pertsona horiek gehitu beharko lirateke; hau da, goi-mailako 2 teknikari, erdi-mailako 2 teknikari, lanbide-heziketako 2, administrari 1 eta administrari laguntzaile 1. Egoera hori lege-aurreproiektu honetara



eguneratuz, uste dugu, lege-aurreproiektuak izapideak erraztea ekarriko duenez, ez dela beharrezkoa izango aipatutako memoria ekonomikoan eskatzen zen pertsonetako bat gehitzea: lanbide-heziketako langilea, hain zuzen. Hartara, guztizko kostua HIRUREHUN ETA HOGEITA ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI EUROkoa (327.558 €) izango litzateke¹.

Horrek esan nahi du lege-aurreproiektuak sortuko dituen gastuak aurreproiektu horretan ezarritako jarduerak gauzatzeko behar diren langileetara mugatzen direla, eta, langile horiek jartzen ez badira, berriz, IHOBEREkin egindako enkarguaren kostuetara eta aurreproiektuan hartutako konpromisoak nahikoa bermerekin gauzatu ahal izateko egin behar diren beste kontratu batzuen kostuetara.

Bestalde, uste da aurreztu egin ahal izango dela IHOBESozietate publikoaren bidez lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen ebaluazio-txostenak egiten laguntzeko kontratatzen diren teknikari espezializatuen gastuan.

2008-2012 aldian, kontratazio horien urteko batez besteko kostua 320.000 eurokoa izan da.

Aurrerago zehatz-mehatz azalduko dugun moduan, kalkuluen arabera, 2013tik 2040ra bitartean, 7.409 toki egongo dira lege-aurreproiektuak ezartzen dituen ekintza-egoeretakoren baten barruan. Toki horien % 40an, lurzoruaren kalitatea ikertuko da; hau da, 7.409 toki horietako 2.964 ikertuko dira.

Beraz, kontratatutako diren teknikariek tokien % 40 ikertu beharko dute (gainerako % 60an, toki batzuetan lurzoruaren erabileraren egokitasuna adierazteko prozedura egingo da, edo beste batzuk salbuetsita geratuko dira lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenen prozeduretatik), eta horrek urtean 192.000 bat euro aurrezteka ekarriko du."

Nabarmendu behar da ez dela adierazten zer gastu dakarkion administrazio honi kudeaketa IHOBESARI agintzeak edo horretarako beste kontratu batzuk egiteak. Ez dira azaltzen enkargatutako edo kontratatutako lan horiek, ez eta zer kostu duten ere. Beraz, ezin da alderatu kostu hori lan horiek administrazioko bertako langileek egitearen kostuarekin. Aurrez aipatu dugun Aurrekontu Zuzendaritzaren 2013ko azaroaren 7ko txostenean, emandako datuak aztertu dira, eta honako hau adierazten da: "Memoria ekonomikoan zehaztutakoaren arabera, kategoria desberdinetako 8 lanpostu faltako lirateke, printzipioz, bere garaian eskatu ziren lanpostu guztiak osatzeko, baina gaur egun uste dugu 7 lanpostu behar direla lurzoruaren kalitatearen alorreko prozedurak izapidetzeaz arduratzen den zerbitzuan.

Lanpostu horien kostuaren gutxi gorabeherako kalkulu bat egin dugu (oinarrizko mailetan), eta guztizko kostua 327.558 eurokoa izango litzateke.

Memoria ekonomikoaren arabera, lege-aurreproiektuan ezarritakoa aplikatzeko egingo den lanaren gastuak, sailak eskatutako langileak onartzen eta jartzen badira, langile horien gastuetara mugatuko dira. Langile horiek jartzen ez badira, berriz, gastuak IHOBEREkin agintzen zaizkion lanen gastuetara eta lan horiek gauzatzeko egin behar diren beste kontratu batzuen gastuetara mugatuko dira. 4. ataleko aurrekontu-sailekin, ziur asko, IHOBEREkin gastuak ordainduko dira (sozietate horretako langileen gastuak, aurkeztutako dokumentuan ageri ez direnak), bai eta "beste kontratuenak" ere. 2013rako eta 2014rako aurrekontu-proiektuetan, honako hauek izango dira 4. ataleko aurrekontu-sailak:

¹ Kalkuluak egiteko, talde bakoitzeko oinarrizko mailak hartu dira, eta Gizarte Segurantzaren kostuak gehitu dira.

					Proyecto Presupuesto	
					2013	2014
9	4421	21	23201	0 Servicios de profesionales independientes	25.000	75.000
					Actuaciones en suelos contaminados.	
9	4421	21	23899	11 Crédito comprometido en años anteriores.	112.284	
					Actuaciones en suelos contaminados.	
					Crédito de compromiso: 2014: 0,15 M; Total:	
9	4421	21	23899	22 0,15 M.	222.420	
					Actuaciones en suelos contaminados.	
					(vertederos públicos). (Ctdo.) Crédito	
9	4421	21	23899	14 comprometido en años anteriores.		150.000
					Actuaciones subsidiarias en materia de	
9	4421	21	23899	15 residuos peligrosos y suelos contaminados.		120.000
TOTAL					359.704	345.000

Honako hau da 4421 "Ingurumenaren Babesa" programan IHOBEn enkargatutako lanak ordaintzeko erabiliko den aurrekontu-saila (ingurumena babesteko zenbait arlotako lanak finantzatzen ditu, lurzoru kutsatuenak barne):

					Proyecto Presupuesto	
					2013	2014
9	4421	21	23899	Encomienda a IHOBE,S.A, Administración 29 Ambiental.	1.815.000	1.800.000

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen Legeko 13.4 artikuluko zatian ezarritakoaren arabera (2013an indarrean dago), lanpostuak sortzeko, Gobernu Kontseiluaren berariazko baimena behar da. Baimen hori lortzeko, lanpostuak Gobernu Kontseiluak jasotako aukeren barnean egon beharko du, finantziario egokia eduki beharko du, eta funtzio publikoaren alorreko organo eskudunaren aldeko txostena lortu beharko du aurrez.

Bestalde, aipatu da zenbait kontratazio egin direla laguntza tekniko espezializatua jasotzeko, IHOBEn bidez, lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen ebaluazio-txostenak egiten laguntzeko. Kontratazio horien urteko batez besteko kostua 320.000 eurokoa izan da azken urteetan. Nolanahi ere, aurreikuspenen arabera, etorkizunean prozedurak erraztuko direnez, esku-hartze hori murriztu egingo da, eta kostua ere % 60 murriztuko da; hau da, kalkuluen arabera, gastua 128.000 eurokoa izatera igaroko litzateke".

6. kapituluak: Pentsa dezakegu proposamena egin duen sailak material inbentariagarriaren behar berriak izango dituela, lanpostu berriak sortzearen ondorioz. Dena den, ez da horri buruzko baloraziorik egin.

4/7 kapituluak: - Aurreproiektuko 41. artikuluko kutsatutako edo hondatutako lurzoruak leheneratzeko neurriak hartzea behartuta dauden pertsona fisiko eta juridikoak jasotzen ditu. Artikulu horretako 7. atalean, (2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 29.5 artikuluko zatia jasotzen duen modu berean) honako hau ezartzen da: "neurriak hartzeko, elkarren artean lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ditzakete neurriak hartu behar dituztenek eta administrazio publikoek, laguntza publikoak ematea barne dela, honako konpromiso honekin: lurzoruak berreskuratu ondoren lurzoruok lortutako gainbalioetatik, berreskuratzea finantzatu duen herri-administrazioari itzuliko zaiola berak jarritako kopurua, Lege honetako 48. artikuluan ezarritako moduan".

“Diru-laguntzak” izeneko 48. artikulua, berriz, honako hau ezartzen du (bat dator indarrean dagoen 1/2005 Legeko 37. artikuluekin, zati batean): “Lege honetan aurreikusitako eginbeharrak betetzeko, pizgarri gisa, diru-laguntzak eta mailegu pribilegiatuak eman ahal izango dira eta onura fiskalak ezarri. Pizgarri horiek ezin izango zaizkio eman lurzorua kutsatu edo hondatu zuenari...”. Horrez gain, honako baldintza gehigarri hau zehazten du: “aldez aurretik berme bat eratu beharko da, ziurtatzeko Administrazio Publikoari eman duen diru-laguntza itzultzeko erabiliko direla lurzoruek lortutako gainbalioak”. Bestalde, gaur egun ezarrita dagoen atal hau kendu da: “erostean lurrak izandako prezioa eta leheneratu ondorengo balioa kontuan hartu beharko dira”. Ez da arrazoitu zergatik kendu den atal hori eta zergatik galdu duen zehaztasun hori aginduak.

Diru-laguntzei dagokienez, memoria ekonomikoak honako datu hauek ematen ditu:

“...Bestalde, kontuan hartu behar da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak diru-laguntzen deialdi bat egiten duela, urtero, garapen jasagarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalentsat, mankomunitateentzat, beste toki-erakunde batzuentzat, tokiko organismo autonomoentzat eta tokiko merkataritza-sozietateentzat.

Deialdi horren esparruan, lurzoru kutsatuekin lotutako lan-lerro bat dago. Horren bidez, diruz lagun daitezke kutsatutako lurzoruak ikertzeko eta leheneratzeko ekintzak, bai kutsagarriak izan daitezkeen industria-jarduerak eduki dituzten lurzoru-egiten direnak, bai eta Hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen dituen azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua indarrean sartu aurretik beren jarduera bertan behera utzi zuten antzinako hondakinen kontrolatu gabeko biltegietan egiten direnak ere. Betiere, lurzoru leheneratzearen helburua bada lurzoruaren kalitatea kokalekuak izango duen erabilerarekin bateragarri izatea, eta aurreikusitako azken erabilera horren lehentasunezko erabilera soziala bada. Tokiko titulartasuneko lurretan egiten badira soilik jasoko dute diru-laguntza ekintza horiek. Salbuespen bakarrak izango dira lurren bat diru-laguntza jaso dezakeen ekintza egitera behartuta egotea legeria aplikagarriaren arabera, edota behartuta dagoen ekintza egin ezin izatea, konkurtso-egoeran egoteagatik. Lurzoru publikoak leheneratzeko ekintzak etxebizitzak eraikitzeke edo lurzoru industrial bihurtzeko egiten badira, ezin izango da diru-laguntzarik jaso.

Hurrengo taulan, azken 3 urteetan lurzoru kutsatuen lerroan diru-laguntzak jaso dituzten proiektuei buruzko informazioa dago:

Urtea	Diruz lagundutako proiektuak	Diru-laguntzen guztizko zenbatekoa	Leheneratutako m ² -ak	Ikertutako m ² -ak
2010	17	1.341.562 €	24.338	446.536,38
2011	10	562.878,80 €	57.471	493.759
2012	19	623.942,77	21.600	158.400

Aurrez aipatu dugunetik ondoriozta dezakegu diruz lagundutako jardueren helburua izaten dela substantzia kutsatzaileek gizakien osasunean eta ekosistemetan izan dezaketen eragina murriztea.

Taulan jasotzen da zer aurrekontu-egitura erabili den 2013. urtean urte horretako deialdirako, eta zer zenbateko erabiliko diren zenbait urtetan hura gauzatzeko:

SEKZIOA; AZPIPRO; zerbitzua; ZENTROA; AZPIKON; partida	Izena	2013	2014	2015	Guztira
09.44210.22.0100.722.01.202	Udalei emandako diru-laguntzak. Lurzoru kutsatuen lerroa.	90.000	90.000	420.000	600.000

EHAA kontsultatuz gero, ikus daiteke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2013ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez (129. EHAA, 2013ko uztailaren 8koa) egin zela diru-laguntza horietarako deialdia, aurrekontuetan (*proiektua*) esleitutako zenbatekoarekin: 600.000,00 €. Euskal Autonomia Erkidegoko 2014. urterako Aurrekontu Orokorren proiektuan (2013ko urriaren 29ko Gobernu Kontseiluak onartua), “2014an garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalentsako diru-laguntzak” izeneko 09.4421.22.72201.005 aurrekontu-sailean, honako kopuru hauek esleitzen dira: ordainketa-kreditua 2014rako: 410.000,00 €; konpromiso-kreditua 2015erako: 0,41 M; 2016rako: 1,23M; guztira: 1,64 M (“lurzoru kutsatuen lerroa” barnean hartzen duen deialdi orokor bat da).

Diru-laguntzen lerro hori udalentsat, mankomunitateentsat, beste toki-erakunde batzuentzat, tokiko organismo autonomoentsat, tokiko garapen-agentzientzat eta tokiko merkataritza-sozietateentsat bakarrik da, baina gogorarazi behar da legean pizgarriei buruz ezarritakoak legeak adierazitako betebeharrak betetzen dituen edozein pertsonari eragiten diola, kutsaduraren sortzaileari izan ezik. Nahiz eta organo sustatzaileak memorian adierazten duen “*ez dela aurreikusten indarrean dagoen arauditik ondorioztatutakoaz bestelako eragin gehigarririk*”, emandako diru-laguntzen kopurua eta zenbatekoa soilik jakinarazi zaio zerbitzu honi, eta ez da ebaluatu zer emaitza izan dituzten. Emaitza horiek aurrez jarritako helburuekin alderatuz ebaluatu beharko lirateke, diru-laguntzen programari dagoen-dagoenean eutsi behar zaiola justifikatzeko.

2. Diru-sarreren aurrekontua

Aurreproiektuko VIII. kapituluak berritasun bat gehitzen du, aurreko araudiaren aldean: EAeko Administrazioak tasa batzuk izango dituela honako ingurumen-zerbitzu hauek emateagatik:

1. Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen ebaluazio-txostenak egitea.
2. Indusketa baimentzeko ebazpenak egitea.
3. Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak egitea.
4. Salbuespen-ebazpenak egitea.
5. Lurzoruaren erabileraren egokitasunari buruzko adierazpena egitea.
6. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko akreditazioaren ebazpena egitea.
7. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko akreditazioa aldatzea.

8. Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroari eginiko kontsulta.

Espedientean, Zerga Administrazioiko Zuzendaritzaren nahitaezko txostena dago, 2012ko uztailaren 27koa, eta honako hau dio:

“V.- GOGOETAK

Orain arte azaldutakoaren haritik, hau da lege-aurreproiektuaren zerga-alderdiei buruz dugun iritzia:

1. Informazioa zenbait arautan ez sakabanatzeko, komeni da lege-aurreproiektuko VIII. kapitulua kentzea, eta haren ordeaz azken xedapen bat gehitzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari Buruzko Legearen testu bategina onartzeko den 2007ko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuko IX. tituluan; titulu horretako II. kapitulua izango litzateke xedapen berri hau.

2. Tasaren zergapeko egitatea eta subjektu pasiboa arautzen dituzten artikuluen idazketa sinplifikatu da.

3. Zergapeko egitatea osatu egin da, lurzoria leheneratzea akreditatzeko prozedurari buruzko jarduerak gehituz. Hartara, omisio-akats bat konpondu da. Jarduera horren ebazpena egiteko tarifa, egindako lanen antzekotasuna dela-eta, lurzoruaren erabileraren egokitasunari buruzko adierazpenaren ebazpena egiteko tarifa bera da.

4. Tasaren sortzapena ezarri da, Tasa eta Prezio Publikoari Buruzko Legearen 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Horrez gain, dagokion jarduera eskatzen den unean eska daiteke tasa ordaintzeko, eta hala egitea komeni dela erabaki du tasa kudeatzeaz arduratzen den ingurumen-organoak.

5. Bestalde, ingurumen-organoak erabaki du, oro har, tasaren subjektu pasiboek autolikidazio-eragiketa egin beharko dutela nahitaez, jarduerak eskatzen dituzten unean. Dena den, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egiteko prozeduretan, ingurumen-organoak ordainduko du tasa, dagokion ebazpena egin ondoren. Une horretan, ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa ezarri ahal izango du.

6. Egindako gogoeten ondorioz, tasaren kuotaren zenbatekoari buruzko zenbait aldaketa egin beharko lirateke, lege-aurreproiektuko artikulua hauetan:

- 35.2.g letran. Honako hau dio:

g) Arau honetan ezarritakoaren arabera ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa.

Eta honako hau jarri beharko luke:

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoari Buruzko Legearen testu bategineko IX. tituluko II. kapituluan ezarritakoaren arabera ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa.

- 40. artikuluko e) letra eta 35.2 artikuluko h) letra kendu egin beharko lirateke, artikulua horietan arautzen diren prozedurak has daitezela eskatzean autolikidazio-eragiketa egin behar dela ezarri ondoren.

Azkenik, azaldutako guztiagatik, honako idazketa hau proposatzen da lege-aurreproiektuko azken xedapen berrirako:

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Lurzoria ez kutsatzearen eta kutsatutakoa garbitzearen alorreko jarduerengatiko tasa.

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tasei eta Prezio Publikoari buruzko Legearen Testu Bateginean, IX. tituluan, beste II. kapitulu bat gehitu behar da. Honela geratuko da idatzita:

II. KAPITULUA. LURZORUA EZ KUTSATZEAREN ETA KUTSATUTAKOA GARBITZEAREN ALORREKO JARDUERENGATIKO TASA

191 quater artikulua. – Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea da ingurumen-organoak lurzoria ez kutsatzearen eta kutsatutakoa garbitzearen alorreko zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea. Honako hauek izan daitezke jarduerak:

1. Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozeduran, ingurumen-organoak honako hauek egitea:

a) Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen ebaluazio-txostenak, aurkeztutako ikerketa-txostenak osatu gabe daudelako.

b) Indusketa baimentzeko ebazpenak.

c) Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak.

d) Salbuespen-ebazpenak.

2. Lurzoruaren erabileraren egokitasunari buruzko adierazpenaren ebazpena egitea.

3. Lurzorua leheneratzeari buruzko akreditazioaren ebazpena egitea.

4. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko akreditazioa ematea.

5. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko emandako akreditazioak aldatzeko eskaerak izapidetzea, akreditazioaren norainokoa handitu delako eta/edo proiektuburu eta arrisku-analista berriak gehitu direlako eta haien trebakuntza ez delako aintzat hartu aurrez.

6. Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroari egindako kontsultekin lotuta emandako erantzuna.

191 quinquies artikulua. – Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak dira zergapeko egitate diren zerbitzu edo jarduera bat edo batzuk eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

191 sexies artikulua. – Sortzapena.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak ematean edo jarduerak egitean sortuko da tasa. Dena den, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

191 septies artikulua. – Kuota.

1. Tasa honen kuota tarifa honen arabera eskatuko da (eurotan):

a) Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozeduran:

- Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen ebaluazio-txostenak egiteagatik 150,00
- Indusketak baimentzeko ebazpenak egiteagatik 200,00
- Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak egiteagatik 200,00
- Salbuespen-ebazpenak egiteagatik 100,00

b) Lurzoruaren erabileraren egokitasunari buruzko adierazpenaren ebazpena egiteagatik 150,00

c) Lurzoruaren leheneratzeari buruzko akreditazioaren ebazpena egiteagatik 150,00

d) Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko akreditazioa emateagatik 400,00

e) Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko akreditazioa aldatzeagatik 100,00

f) Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroari kontsulta egiteagatik 50,00

2. Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenen prozeduretan, ordaindu beharreko tasaren kuotaren zenbatekoa kalkulatzeko, prozedura horretan ematen diren erantzunen kopurua hartuko da kontuan.

191 octies artikulua. – Hobariak.

1. Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozeduran, honako hobari hauek aplikatuko dira:

d) kuotaren % 10, enpresa txiki eta ertainen kasuan, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EB Gomendioaren definizioari jarraituz.

e) kuotaren % 20, mikroenpresen kasuan, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EB Gomendioaren definizioari jarraituz.

f) kuotaren % 50, subjektu pasiboek frogatzen badute EMAS ziurtagiria dutela.

2. Aurreko atalean adierazitako hobariren bat aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboek, prozedura has dadila eskatzean, baldintza horiek betetzen dituztela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpen bat gehitu beharko dute.

191 nonies artikulua.- Tasaren ordainketa

1. Subjektu pasiboek zerga-zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute, dagokion jarduera eskatzean, autolikidazioaren bidez.

2. Dena den, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenen prozeduretan, ingurumenaren alorreko eskumenak dituen organoak erabakiko du zenbatekoa eta ordainduko du tasa, prozedura amaitzen duen ebazpena egin ondoren".

Azpimarratu behar da, Bulego honek jaso duen lege-aurreproiektuaren testuan, ez direla kontuan hartu Zerga Administrazioari Zuzendaritzak egindako gogoetak eta idazketa-proposamenak. Gogorarazi nahi dugu, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko 2013ko apirilaren 9ko 192/2013 Dekretuko 17.a letrak ezarritakoari jarraituz (Dekretu hori indarrean dago), Zerga Administrazioari Zuzendaritzari dagozkiola honako hauek: "Ordenamendu juridikoak zerga-administrazioaren arloan Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriari eta Instituzionalari ematen dizkion eskumen guztiak". Gainera, ez da adierazi proposamen horiek ez onartzeko arrazoirik.

Memoria ekonomikak kalkulatu du zenbat jarduera egongo liritekeen lotuta aurreproiektuak sortutako tasen aplikazioarekin, eta, horrez gain, kalkulatu du zer ondorio ekonomiko izan dezakeen tasa hori aplikatzeak. Memorian horri buruz esaten dena transkribatuko dugu orain:

"Aurreproiektuak sortutako tasak aplikatzeak izango duen eragin ekonomikoa kalkulatzeko, prozedura bakoitzari atxikitako jardueren kopurua bider tasa bakoitzerako zehaztutako kuota egin behar da. Hartara, honako taula honetan jaso ahal izan dugu eragin ekonomikoa, modu analitikoan, tasaka xehatuta:

ZERGAPEKO EGITATEA	2013TIK 2040RA BITARTEAN AURREIKUSITAKO JARDUEREN KOPURUA	TASA	KOSTUA (€)
1. Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen ebaluazio-txostenak egitea	4.385	150 €	657.750
2. Indusketa baimentzeko ebazpenak egitea	355	200 €	71.000
3. Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak egitea	2.964	200 €	592.800
4. Salbuespen-ebazpenak egitea	740	100 €	74.000

ZERGAPEKO EGITATEA	2013TIK 2040RA BITARTEAN AURREIKUSITAKO JARDUEREN KOPURUA	TASA	KOSTUA (€)
5. Lurzoruaren erabileraren egokitasunari buruzko adierazpena egitea	2.964	150 €	444.600
6. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko akreditazioa ebaztea	20	400 €	8.000
7. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta leheneratzeko erakunde gisa aritzeko akreditazioaren aldaketa ebaztea	100	100 €	10.000
8. Administrazio Erregistroari egindako Erregistroari erantzuna kontsultaren	14.850	50 €	742.500
TASAK GUZTIRA			2.600.650

6. taula Administrazio-zerbitzuak emateagatikko tasak jartzearen ondorio ekonomikoa.

Beraz, aurreproiektuan ezarritakoaren arabera EAEko Administrazioak lurzoruaren alorreko ingurumen-zerbitzuak emateagatik kobratuko dituen tasen eragin ekonomikoa **2.600.650 €-koa izango da, 2013. urtetik 2040. urtera bitartean**².

Horrek esan nahi du **urteko 96.320 euroko eragin ekonomikoa izango duela gutxi gorabehera.**

Nolanahi ere, kontuan hartu beharko da, EAEko enpresa-sarearen ezaugarri berezien ondorioz, tasa ordaindu behar duten jardueren erdietan, gutxi gorabehera, nolabaiteko hobariaren bat aplikatuko dela.

Era berean, adierazi behar da Legean ezarritako zehapenek zuzenbide publikoko diru-sarrerak sortuko lituzketela. Gaur egun indarrean dagoen Legeak ere jasotzen du zehapen-araubide bat, baina orain proposatutakoak aldatu egiten du **zehapena** jaso dezaketen jokabideen tipifikazioa, edo tipo berriak gehitzen ditu (oro har, jokabide gehiago hartzen dira zehagarriztat, eta areagotu egiten da arau-hauste larrien eta oso larrien kopurua). Gainera, gehieneko isuna % 25 inguru igotzen du, 1.202.000 €-tik 1.500.000 €-ra igarotzen baita. Beraz, ondoriozta dezakegu zehapenetatik datozen diru-sarrera publikoak aldatu egingo direla (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko 32.g letra), baina Bulego honi aurkeztu zaion dokumentazioan ez da hori dioen zenbatespenik agertzen.

Azkenik, berritasun gisa azaldu behar da, 67. artikulua ezartzen duenez, administrazioak ezarritako zehapenetatik lortzen diren fondo ekonomikoak ingurumena hobetzeko erabili beharko direla oso-osorik. Hori ezartzen zuen dagoeneko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 103. artikulua, leheneratzea ingurumena babesteko mekanismotzat hartzen duen printzipioarekin

² Kontuan izan, tasa horiek aplikatzeak gastu erako e ragin ekonomiko bat badu ere lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenak eta ingurumen-kalitatearen est andarrak sustatzen dituztenentzat, diru-sarrera bat direla EAEko Administrazioarentzat.



lotuta ziur asko, baina ez dago jasota indarrean daukagun 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legean. Alde horretatik, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 41. artikulua honako hau ezartzen du: “*Sarrera bakoitzaren araudian bestela ezartzen ez bada, sarreraren helburua izango da horren titularra den erakundearen betebeharren multzoa finantzatzea*”. Beraz, onartzen da diru-sarrerak beste helburu batzuetarako erabiltzea salbuespen gisa, baina salbuespen hori diru-sarreraren loturarik ezaren aurrekontu-printzipioaren bidez argudiatu beharko litzateke, gutxienez ere, eta aldaketaren arrazoia azaldu.

Atal hau amaitzeko, Aurrekontu Zuzendaritzak 2013ko azaroaren 7an lege-aurreproiektuari buruz egindako txosteneko ondorioak transkribatuko ditugu orain:

“Ondorio gisa, informazioa azaldu zaigun moduan, ez dugu uste lege berria aplikatzeak indarrean dagoen legeak baino eragin ekonomiko handiagoa ekarriko duenik.

Nahiz eta ez den zehaztu IHOBEn agintzen zaizkion lanetan zer aurrekontu-zuzkidura espezifiko erabiliko den lurzoru kutsatuetarako, eta ez den zehaztu, halaber, zenbat murriztuko litzatekeen aurrekontua saileko langileek bere gain hartuko balituzkete lan horiek, badirudi ez dela egingo aurtengo nahiz hurrengo urteetako ohiko zuzkiduren gainetik dauden aurrekontuak behar dituen jarduerarik. Hortaz, arau berrian finkatutako helburuak eta ekintzak saileko aurrekontuetako ohiko gastu-aurreikuspenekin bat datozen heinean, Aurrekontu Zuzendaritza honek ez dio inolako eragozpenik jarriko Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko lege-aurreproiektuaren eduki ekonomikoari.

Nolanahi ere, lanpostu berriak sortzean, langileen aldaketari buruz indarrean dagoen aurrekontu-araudian ezarritakoa bete beharko litzateke; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen Legeko 13.4 artikulua-zatia (Lege hori indarrean dago 2013an ere)”.

3.- Antolamenduari dagokionez.

Memoria ekonomikoak dio beharrezkoa dela 7 lanpostu sortzea, eta horrek sailaren egitura organiko eta funtzionalari eragingo lioke, ziur asko. Alde horretatik, litekeena da, sortuko diren lanpostu berriak konfiguratzeko, zerbitzu edo unitate administratibo berriak sortzeko beharra ikustea, edo, sailaren berregituraketa berria kontuan hartuta, konfigurazio horrek dagoeneko existitzen den zerbitzu edo unitate administratiboren bati eragitea. Nolanahi ere, ez da horri buruzko daturik ematen espedientean. 46. artikuluan Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroari buruz ezarritakoari dagokionez, adierazi behar da jasota zegoela dagoeneko indarrean dagoen 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legean. Memoriak adierazten du beharrezkoa dela Erregistro hori “*behar adina langilez hornitzea*”, baina ez du adierazten zer baliabide material eta giza baliabide beharko dituen Administrazioak, Erregistroak ongi funtzionatu ahal izateko.

4.- Lege-aurreproiektua aplikatzeak aurreproiektuak behartutako hirugarrengogan izan dezakeen eragin ekonomikoa.

Memoria ekonomikoak zehazten du zer berritasunek ekar dezaketen eragin ekonomiko bat eragindako eragileetan:

- *Lurzorua ez kutsatzera eta kutsadura kontrolatzera behartuta dauden jarduerak aldiari behin lurzoruaren egoerari buruzko txostenak egin behar izatea (5 urtean behin, gutxienez).*

Memoriak adierazten duenez, txosten bakoitzaren kostua (1.000 euro) bider neurri horren eraginpean egongo diren toki guztiak (kalkuluen arabera, 545, guztira) eginez gero, eta kontuan hartuta aldiari behingo 6 txosten egin beharko direla gutxienez denboraldi horretan, berritasun horren eragin ekonomikoa 3.270.000 €-koa izango da 2013tik 2040ra bitartean. Horrek esan nahi du, 2013tik 2040ra bitartean, urteko 121.111 €-ko kostua izango duela, gutxi gorabehera.

- *Lurzoruaren erabileraren egokitasunari buruzko adierazpena egiteko prozedura.*

Memoriaren kalkuluen arabera, 2013an oraindik ere lurzoruaren kalitateari buruzko prozedurak izapidetu ez dituzten toki inbentariatuaren (7.409) % 40k aurreztu egingo lituzke ikerketek eragindako gastuak; hau da, 2.964 tokik. Kalkulatu da ikerketen kostu eguneratua 182.952.382 eurokoa dela; beraz, tokien % 40n ikerketa horiek ez egitearen aurrezpena 73.180.952 eurokoa izango litzateke 2013tik 2040ra bitartean. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da ikerketarik egiten ez duten tokietan, ikerketa horren ordez, erakunde akreditatu batek lurzoruaren egoeraren txosten bat egin beharko duela. 1.000 euroko kostua dutenez alde aurreko txostenek, eta uste dugunez 2.964 egingo direla (7.409ren % 40), jarduera honetarako kalkulaturako guztizko kostua 2.964.000 eurokoa izango litzateke.

Beraz, lurzoruaren egokitasunaren prozedura ezartzeak ekarriko lukeen guztizko aurrezpena 70.216.952 €-koa izango litzateke 2013tik 2040ra bitartean. Horrek esan nahi du 2.600.628 € aurreztuko liratekeela urtean.

- *Lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenen prozeduretan salbuespen-egoerak txertatzea.*

Memoriaren kalkuluen arabera, 2013an oraindik ere lurzoruaren kalitateari buruzko prozedurak izapidetu ez dituzten toki inbentariatuaren (7.409) % 20k aurreztu egingo lituzke ikerketek eragindako gastuak; hau da, 1.481 tokik. Kalkulatu da ikerketen kostu eguneratua 182.952.382 eurokoa dela; beraz, tokien % 20n ikerketa horiek ez egitearen aurrezpena 36.590.476 eurokoa izango litzateke 2013tik 2040ra bitartean.

Beraz, salbuespen-egoerak ezartzeak ekarriko lukeen aurrezki garbia 36.590.476 €-koa izango litzateke 2013tik 2040ra bitartean. Horrek esan nahi du 1.355.202 € aurreztuko liratekeela urtean.

- *EAEko Administrazio Orokorrek zerbitzuak emateagatiko tasak txertatzea.*

Ikusi dugu Memoriak 2.600.650 euroko zenbatespen arrazoitu bat egin duela 2013tik 2040ra bitarterako. Horrek esan nahi du 96.320 euroko eragin ekonomikoa izango duela urtean. Baina espedienteak ez du jasotzen zer ondorio izango duen hirugarrengoak ordaintzera behartuta egoteak, horrek sor ditzakeen irabazien aldean.

Memoriak ez du zenbatespen ekonomikorik egiten honako honi buruz: *Berre ekonomikoak (abalak, fidantzak) ezatzeko aukera, lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenean ezarritako neurriak betetzen direla bermatzeko (neurri horrek hobeto bermatuko du ingurumen-betebeharrak betetzen direla, baina kostu gehigarri bat izango da parte hartzen duten eragile batzuentzat), ez eta beste honi buruz ere: Gehienez ere leheneratze-neurri guztien gastu kalkulatuaren %10eko isun hertsatzaileak jartzeko aukera.*

Halaber, ez du zenbatespen ekonomikorik egiten ondorio ekonomikoa eduki dezaketen beste berritasun batzuei buruz, hala nola 13. artikuluan (*Beste aukera batzuk aztertzea eta leheneratze-plana*), 14. artikuluan (*Indusketa selektiboaren plana*) eta 15. artikuluan (*Lurzoruaren azken egoeraren ikerketa*) lurzoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko ezarritako tresna berriei buruz; edota aurreproiektuko 22. artikuluan jasotako kautela-neurriei buruz; edota beste hau aldatzeari buruz buruz: *behartuen lehentasun-ordena, legeak ezartzen dituen leheneratze-betebeharrak betetzeko...*

5.- Ekonomia orokorraren gaineko eragina

Memoria ekonomikoak aipatzen du gai hau, baina ez du zenbatespen kuantitatiborik egiten –nahiz eta adierazten den oso zaila dela-. Honako hau adierazten du, zehazki: *arauaren helburu nagusietako bat da arintzea eta erraztea administrazioak lurzoria ez kutsatzearen eta kutsatutakoa garbitzearen alorrean egiten duen esku-hartzea, eta horrek eragin positiboa izango du industria-sektorearen eta zerbitzu-sektorearen lehiakortasunean. Eragin ekonomiko positibo hori adierazi ditugun neurriak txertatzearen ondorio izango da, enpresek inbertsio-proiektuak egitea sustatuko baitute. Dena den, zaila da eragin ekonomiko hori baloratzea a priori.*

Beharrezko guztia azalduta, txosten hau Ingurumen eta Lurralde Politika Sailera bidaliko da, izapideekin jarraitu ahal izateko.

XVII

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI /
EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOKO IRIZPENA**

**PROYECTO DE LEY PARA LA PREVENCIÓN Y CORRECCIÓN DE LA
CONTAMINACIÓN DEL SUELO,
LEGE PROIEKTUA, LURZORUA KUTSATZEA SAIHESTU ETA
KUTSATUTAKOA GARBITZEKO**